# alderdia

Zarautzen

www.eaj-pnv-zarautz.com

# 07

2008 | azaroa | noviembre



# Pertsonak,

think EUSKADI 2020 gaur

# ideiak,



# eta proiektuak

Irita, Zarauzko etorkizuneko gune ekonomikoa

**'Think Gaur - Euskadi 2020' eta Mitin-afaria**

Ekintza nagusiak

Etorkizuneko lan ildoak







# Ibarretxe, bermea etorkizuneko erronkei begira

# *Ibarretxe, garantía para los retos del futuro*

“Ilusioa berreskuratu behar dugu, esnatu behar dugu. Energiaz gainezka nago, ilusioz beterik, sasoiko kanpotik eta barrutik”. Horrela azaldu zen Juan Jose Ibarretxe iragan irailaren 28an ospatutako Alderdi Egunean bildutako herritar andanaren aurrean egindako hitzaldian, martxoan egingo diren hauteskundeetan Lehendakaritzarako hautagai izendatua izan ondoren. Hainbat frontetatik bere irudia ahultzeko eta alderdi barruan nahasmena eta ikamikak sortzeko egin diren saiakera ugariak emaitzik izan ez dutela erakutsi zuen. Eusko Jaurlaritzaren buru gisa bere laugarren legealdia beteko luke irabaziz gero.

Ibarretxeren izendapena batasunaren eta barne kohesioaren izendapena da, “nazioartean aintzat hartuko den herrialde bat eraikitzea helburu duen eta denek partekatu eta defenditzen duten alberdi, estrategia eta proiektu bakar baterako” oinarria, Iñigo Urkulluren esanetan. “Elkarrekin bagoaz, etorkizuna denon esku dago”, erantsi zuen Ibarretxek. Berme handiko aktibo politikoa da Euskadik aurrean dituen erronka ugariei aurre egiteko: krisialdi ekonomikoa, ETAren indarkeria eta normalizazio politikoa, besteak beste. Lehendakariarentzat, “erabakitzeko eskubidearen aitorpena funtsezko tresna da” erronka horiek gainditzeko eta “ongizatean sakontzeko”.

*“Tenemos que recuperar la ilusión, tenemos que despertar. Estoy lleno de energía, lleno de ilusión, bien por fuera y por dentro”. Así se mostró Juan Jose Ibarretxe en su alocución al público del Alderdi Eguna celebrado el pasado día 28 de septiembre, nada más resultar proclamado candidato a la Lehendakaritza en las elecciones del mes de marzo, demostrando que los sucesivos intentos de desacreditar su figura desde diversos frentes y sembrar la discordia en el partido no han dado fruto. Podría cumplir así nada más y nada menos que su cuarta legislatura al frente del Ejecutivo vasco.*

*El nombramiento de Ibarretxe es el nombramiento de la unidad y la cohesión, la base para “un partido, una estrategia y un solo proyecto compartido y defendido por todos con el objetivo de construir un país reconocido internacionalmente”, según Iñigo Urkullu. “Si vamos juntos, lideraremos el futuro”, añadió Ibarretxe, un activo político de garantías para hacer frente a los diversos retos que se le presentan a Euskadi: crisis económica, violencia de ETA y normalización política, entre otros. El Lehendakari contempla el “reconocimiento del derecho a decidir” como “una herramienta fundamental” para hacer frente a todos esos retos y “ahondar en el bienestar”.*



15.000 personas llenaron el BEC en la presentación de Think Gaur-Euskadi 2020.

## Ideiak badaude, alderdia badago

**-2008ko ekainaren 14a-**

Ekitaldi ikusgarri eta berritzaile batean, eta 15.000 pertsonekin leporaino betetako Bilbao Exhibition Center aretoan, 'Think gaur-Euskadi 2020' aurkeztu zuten, "2020an Euskadi non eta nola kokatu nahi dugun jakitea" helburu duen hausnarketa gune "ireki eta kolektiboa", hain justu. Ekimenak bost atal dauzka (Jasangarritasuna, Gizarte Politikak, Kultura, Berrikuntza, eta Etorkizun Konstituzionala), eta baita hainbat adituren babesa ere. Seminarioak, tailerrak, ikastaroak, eta hainbat jarduera antolatuko dira modu parte-hartzailean proposamen zehatzetara iristeko helburuarekin. Filosofia horren erakusgarri, EAJ-PNVko arduradun politiko nagusiek ekitaldira bertaratutakoen galderei aurre egin behar izan zieten.



Joseba Egibar en el Foro de Humanidades de la Universidad de Deusto.

## *Hay ideas, hay partido*

***-14 de junio de 2008-***

*En un acto espectacular a innovador y en un Bilbao Exhibition Center abarrotado por 15.000 personas, se presenta 'Think gaur-Euskadi 2020', como foro de reflexión "abierta y colectiva para saber dónde queremos situar a Euskadi en el 2020". La iniciativa cuenta con cinco apartados (Sostenibilidad, Políticas Sociales, Cultura, Innovación y Horizonte Constitucional), así como con el respaldo de diversos expertos. Seminarios, talleres, cursos, y diversas actividades que tienen como fin llegar de manera participativa a propuestas concretas. Prueba de ese espíritu de cercanía, los responsables políticos de EAJ-PNV tuvieron que hacer frente en el acto de presentación a las preguntas realizadas por varios de los asistentes.*

# Zarautz





## Mitin-afari arrakastatsua

**-2008ko abuztuaren 29a-**

EAJ-PNVk kurtso politikoaren hasiera ospatzeko Zarautzen antolatu ohi duen mitinak arrakasta handia izan zuen aurten ere. Erantzuna ezin hobea izan zen, ehunka alderdikide eta herritar bildu baitziren Antoniano polikiroldegian. Bertan izan ziren Iñigo Urkullu eta Joseba Egibar, EBB eta GBBko presidenteak, hurrenez hurren, alderdiko beste zenbait kargu, hala nola Markel Olano, Nuria Lopez de Gereñu eta Andoni Ortuzar, eta Zarauzko zinegotziekin batera, azken horiek Imanol Lasa bozeramalea eta Joakin Landa Zarauzko Uri Buru Batzarreko presidentea buru zituztelarik. Mitina 150 lagun bildu zituen afariarekin bukatu zen.

## *Exitoso mitin-cena*

***-29 de agosto de 2008-***

*El acto político que EAJ-PNV acostumbra a organizar en Zarautz y que simboliza el inicio del curso político tuvo un gran éxito también este año. La respuesta fue inmejorable, ya que cientos de alderdikides y simpatizantes se dieron cita en el polideportivo Antoniano. Allí estuvieron Iñigo Urkullu y Joseba Egibar, presidentes del EBB y el GBB, respectivamente, así como Markel Olano, Nuria Lopez de Gereñu, Andoni Ortúzar, y los concejales del Ayuntamiento de Zarautz, con el portavoz Imanol Lasa y el presidente de la Junta Municipal Joakin Landa a la cabeza. El mitin concluyó con una cena en la que participaron 150 personas.*






+ obrak

Jose Mari Agirre Obra eta Proiektu zinegotzia, Etxezabala eta merkatu berriko elektrizitate sistemaren instalazioa gainbegiratzen.

## Herriko obra garrantzitsuenei bultzada

### • Merkatu berria eta Etxezabala:

Jose Mari Agirre Obra eta Proiektuen zinegotziaren kudeaketarekin, arkitektuen eta kontrataren arteko akordioa lortzen da merkatu berriaren eta Udalaren hainbat zerbitzu hartuko dituen eraikinaren obrak desblokeatzeko, lanak geldiaraztea egotea eragin zuten zailtasunak gaindituz. Egurraren hornikuntzan izandako arazoak gorabehera, aurreikusitako epeak betetzea espero da. Merkatua urtarril amaierarako prest egongo da, eta Etxezabala, berriz, martxo amaierarako.

Etxezabalan aurreikusten den eraikin berria merkatuko goiko partetik lotuko da egungo udaletxearekin. Udaleko hainbat zerbitzu kokatuko dira bertan, hala nola herritarrekiko arreta, idazkaritza, edota Ekonomia saila. Halaber, zuzenean sartu ahal izango da eraikinera, Kale Nagusitik.

Merkatuari dagokionean, helburua bere balio arkitektonikoa eta merkatal erabilgarritasuna mantentzea izan da. Teilatua eta estalkia konpontzeaz gain, tartea zabaldu da beheko solairuaren argiztapena hobetzeko, eta espazioak eta sarbideak berrantolatu dira. Aurreneko solairuak saltoki tradizionalak hartuko ditu, eta espazioa bat gordeko du baserritarrentzat. Bigarren solairuak, berriz, Zarauzko kultura eta bizitza sozialari lotutako hainbat erabilpen izango ditu, Etxezabala eta egungo udaletxearen arteko lotura lanak egiteaz gain.

**Inbertsioa:** 5.047.749 euro.

## *Impulso a las principales obras del pueblo*

### *• Mercado y Etxezabala:*

*Bajo la gestión del concejal de Obras y Proyectos Jose Mari Agirre, se consigue un acuerdo entre los arquitectos y la contrata para desbloquear las obras del nuevo mercado y el edificio que albergará distintos servicios municipales, superando las dificultades que llegaron a paralizarlas. Pese a las demoras en el suministro de madera, esperan cumplirse los plazos previstos. El mercado estará listo para finales de enero, y Etxezabala para finales de marzo.*

*El nuevo edificio contemplado en Etxezabala se conectará con el actual Ayuntamiento a través de la parte superior del mercado. Acogerá diversos servicios municipales como la atención al ciudadano, la secretaría y el departamento de Economía y tendrá un acceso directo por Kale Nagusia.*

*En cuanto al mercado, el objetivo ha sido mantener el valor arquitectónico de este espacio y su uso comercial. Además de reparar la cubierta, se ha ampliado el hueco para iluminar más la planta baja y se han reordenado espacios y accesos. La primera planta acogerá los puestos de venta tradicionales y reservará un espacio para los baserritarras. El segundo piso tendrá diversos usos relacionados con la cultura y la vida social de Zarautz, además de servir como conexión entre Etxezabala y el edificio del Ayuntamiento.*

***Inversión:*** *5.047.749 euros.*







## • Eguneko Zentroa:

Zalantzarik gabe, legealdi honetako proiektu estrategikoetako bat. Egungo zentroaren eskaintza bikoiztuko du, eta gaur egun Getaria eta Orioko zentroetara jo behar duten adinekoek Zarauztik mugitu behar ez izatea posible egingo du. Biztanle adinduen aurreikusitako hazkundeari erantzuna emateko gaitasuna dauka, gainera. Halaber, inguruan dagoen aparkaleku eskasia arinduko du, sotoari esker lortuko diren 47 plazak bizilagunen eskura jarriko baitira, urte kopuru baterako zesio erregimenean.

**Ezaugarriak:** Eguneko zentroko 50 plaza, beste 50 tutelatutako apartamentuetan, eta gizarte larrialdietarako lau apartamentu, zortzi pertsona hartzeko tokia dutenak.

**Inbertsioa:**5.711.578 euro.

## • *Centro de Día:*

*Uno de los proyectos estratégicos de la legislatura. Duplicará la oferta del actual centro y permitirá que mayores que hoy en día tienen que desplazarse a Getaria y Orio no tengan que moverse del pueblo, adaptando su oferta al crecimiento previsto de la población mayor. Además permitirá paliar la falta de aparcamiento de la zona, ya que las 47 plazas que se obtendrán gracias al sótano se pondrán a disposición de los vecinos en regimen de cesión.*

***Características:*** *50 plazas de centro de día, otras 50 en apartamentos tutelados, y cuatro apartamentos de emergencia social con capacidad para ocho personas.*

***Inversión:*** *5.711.578 euros.*

---



## • Hiruerreketa:

28 autorentzako aparkalekua eraiki da, Zarauzko erdigunetik urruti dauden auzo eta espazioetan bereziki larria den aparkaleku faltari konponbidea emateko hartutako konpromisoa betez.

**Inbertsioa:** 177.737 euro.

## • *Hiruerreketa:*

*Construcción de 28 plazas de aparcamiento, con lo que se cumple el compromiso adoptado de trabajar para solucionar la falta de estacionamiento en las zonas alejadas del centro urbano de Zarautz, donde resulta especialmente grave.*

***Inversión:*** *177.737 euros.*




**LIDERAZGO COMPARTIDO.** El consejero de Sanidad del Gobierno Vasco, Gabriel Inclán, en la inauguración del Centro de Salud junto a los concejales de EAJ-PNV.

## Osasun Zentro berriaren inaugurazioa. 2008ko ekainaren 26a



Osasun Zentro berria aurrerapen nabarmena da zarauztarron bizi kalitatean. Jauzi kualitatibo handia dakar 1980an eraikitako anbulategi zaharrarekin alderatuta, espezialitate jakin batzuetan arreta behar duten bizilagunek Donostiara joan behar ez izatea ahalbidetzen duelako, denbora horretan biztanle kopuruan izan den hazkunde handiari (10.000 pertsona inguru) erantzuna emateaz gain. Bestalde, lidergo partekatuaren adibide ere bada, Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren elkarlanarena, hain justu.

• **Inbertsioa:** Zazpi milioi euro.

• **Azalera:** 4.300 metro koadro.
(anbulategi zaharrak baino ia 3.500 gehiago).

• **Espezialitateak:** Osasun mentala, odontologia, oinarrizko arreta, arreta espezializatua eta epidemiologia.

## *Inauguración del nuevo Centro de Salud. 26 de junio de 2008*

*El nuevo Centro de Salud supone un gran avance en calidad de vida y un enorme salto cualitativo respecto al viejo ambulatorio construido en 1980, ya que permite a los vecinos no tener que acudir a Donostia para ser atendidos en determinadas especialidades, además de dar respuesta a al aumento de la población en ese periodo, estimado en 10.000 personas. Es además un ejemplo del liderazgo compartido, en este caso del trabajo conjunto del Ayuntamiento y la Consejería de Sanidad del Gobierno Vasco.*

• ***Inversión:*** *Siete millones de euros.*

• ***Superficie:*** *4.300 metros cuadrados.*
*(casi 3.500 más que el anterior centro).*

• ***Especialidades:*** *Salud mental, odontología, atención primaria, atención especializada y epidemiología.*

## ONGIZATEA. INTEGRAZIOA ETA ELKARTASUNA



**KULTURARTEKOTASUNA.** Etorkinen integrazioa errealitate bihurtzea da egungo erronka nagusietako bat.

Zarauztar guztion oinarrizko beharrei gizarte zerbitzuen bitartez arreta ematen jarraitu eta berdintasun eta prebentzio egitasmoak indartzeaz gain, Maribel Albizu buru duen Gizartekintza sailak erronka nagusi gisa hartu du etorkinen integrazioa errealitate bihurtzea. Horren adibide da Julen Aranguren, Inmigrazio teknikari berriaren kontratazioa. Dagoeneko hilabeteak daramatza lanean, eta horren isla dira Zarauztik Mundura jaialdia, Aisa euskara ikastaroak, edota tratu txarren biktimak direnentzat telefono bidezko laguntza zerbitzu berezia bezalako ekimenak. Aipamen berezia merezi du ere garapenerako lankidetza, iragan maiatzean egin zen Aste Solidarioarekin. Bertan 14 Gobernuz Kanpoko Erakundek beraien lana azaldu zuten.

**Inbertsioa guztira:** 2.510.169 euro.

## BIENESTAR SOCIAL. INTEGRACIÓN Y SOLIDARIDAD

*Además de seguir atendiendo las necesidades básicas de todos y todas las zarauztarras a través de los servicios sociales y reforzar los programas de igualdad y prevención, la concejalía que dirige Maribel Albizu se ha marcado como reto hacer de la integración de los inmigrantes una realidad. Prueba de ello es la contratación de un nuevo técnico de Inmigración, Julen Aranguren, cuyo trabajo se ha visto plasmado en iniciativas como Zarauztik Mundura, los cursos de euskara Aisa, o el servicio de atención telefónica especializado para víctimas de malos tratos. Mención especial merece también la cooperación al desarrollo, con la Semana Solidaria organizada en mayo y en la que 14 ONGs dieron a conocer sus proyectos.*

***Inversión total:** 2.510.169 euros.*



## SOLDATAK BERE HORRETAN

## EKIMENA HARTZEN DUGU

**Udalaren Osoko Bilkura - 2008ko irailaren 26a -**

Zarauzko Udalaren Osoko Bilkurak erabaki zuen, EAJ-PNVren udal taldeak hala proposatuta eta krisialdi ekonomikoa kontutan harturik, Udaleko kargu politiko eta konfiantzazko eta asimilatuen soldatak izoztea 2009. urterako. Imanol Lasa bozeramaleak hala azaldu zuen bere jarrera: “Bizi dugun egoera ekonomikoaren ondorioz, Udalaren diru-sarrerak murriztu egingo dira. Horregatik erabaki genuen gai hau Koordinazio Batzordean mahai gainean jartzea”.



**OSOKO BILKURA.** EAJ-PNVko zinegotziak, beraien ekimenez kargu publikoen soldatak izoztea erabaki zen egunean.

## *CONGELACIÓN DE SUELDOS*

## LLEVAMOS LA INICIATIVA

***Pleno del Ayuntamiento - Día 26 de septiembre -***

*La Corporación reunida en Pleno decide, a iniciativa de EAJ-PNV y en vista de la crisis económica, congelar los salarios de los cargos públicos, cargos de confianza y asimilados del Ayuntamiento de Zarautz para 2009. El portavoz Imanol Lasa explica así su postura: “El momento económico que vivimos hará que los ingresos del Ayuntamiento sean menores, razón por la que decidimos llevar el tema a la Junta de Coordinación”.*




**REGENERACIÓN DEL CENTRO URBANO.** Vista aérea de Salberdin.



UROLA KOSTAKO hitza
2006 / III / 11

HIRIGINTZA ▸

**Astiko proiektuaren ordez Salbardin lehenetsi du EAJk**

COSTA UROLA

ZARAUTZ

**EAJ-PNV plantea construir viviendas en Salberdin y Hegoalde en vez de en Asti**

Propone que de las 811 viviendas pensadas en Salberdin, el 30% sean de VPO en régimen de alquiler, un 50% viviendas tasadas y el 20% restante libres

DV
2006 / III / 11

# ETORKIZUNARI AURRE HARTUZ
## *EN CLAVE DE FUTURO*

**2008ko uztaila - Salberdingo berrantolaketa:** Zarauzko Udalak hitzarmena sinatu zuen eremu horretako promotore eta enpresariekin. Horri esker, 1.095 etxebizitza eraiki ahal izango dira, %50 baino gehiago babes ofizialekoak, 575 hain zuzen, eta industria gunea etxebizitza gune bihurtuko da, hiri erdigunea zaharberrituz eta enpresak Abendaño eta Errotaberrira lekualdatuz. EAJ-PNVko gizon eta emakumeek Salberdin hiri garapen arrazoizko baten oinarri gisa defenditzeko eta Asti eremu berde gisa mantentzeko egindako ahalegina, eta babestutako etxebizitza portzentaje altu baten alde egin duten borroka, funtsezkoak izan dira azken akordio on bat lortzeko. Hala erakusten dute alderdiak egindako agerraldi publikoek zein 2006ko urtarrilaren 12an arau subsidiarioei sartutako alegazioak.

Eremuko Plan Berezia idazteko lehiaketan finalera iritsi diren bost proposamenekin erakusketa zabalduko da, eta zarauztar guztiek horietako zein hobesten duten azaldu ahal izango dute. Iritzi horrek puntu kopuru gehigarria suposatuko du behin-betiko proposamena aukeratzeko garaian.

***Julio de 2008 - Reurbanización de Salberdin:*** *El Ayuntamiento firma con los promotores e industriales del área el convenio de reurbanización que permitirá la construcción de 1.095 viviendas, 575 de ellas protegidas, más del 50%, además de reconvertir esta zona industrial en residencial regenerando el centro urbano y trasladando las empresas a Abendaño y Errotaberri. El empeño de los hombres y mujeres de EAJ-PNV en defender Salberdin como base de un desarrollo urbanístico razonable, manteniendo Asti como zona verde, y su lucha por priorizar un mayor porcentaje de vivienda protegida, han resultado fundamentales para el acuerdo. Así lo demuestran sus sucesivas comparecencias públicas y la alegación a las normas subsidiarias introducida el 12 de enero de 2006.*

*Se abrirá una exposición con las cinco propuestas finalistas del concurso para la redacción del Plan Especial del Area, y los zarauztarras podrán expresar por cuál de ellas se inclinan, opinión que supondrá una serie de puntos suplementarios a la hora de elegir la propuesta final.*






**+ aparcamiento**

DV
2008 / X / 10

ZARAUTZ

**EAJ-PNV propone más aparcamientos y espacios libres en la ordenación de Iñurritza**

La formación jeltzaie ha presentado su propuesta de ordenación que aspira a mejorar las comunicaciones en la zona de la Ikastola, adaptándose al PGOU

Gipuzkoa
2008 / X / 12

LOS JELTZALES PIDEN **MÁS APARCAMIENTOS Y ESPACIOS VERDES** PERO EL RESTO "NO LO VE OPORTUNO PARA LA ZONA"

UROLA KOSTAKO hitza
2008 / X / 12

**Iñurritzako antolamendu berriak eztabaida piztu du Udal Gobernuaren baitan**

Hirigintza

EAJk Lapurdi kalea luzatu eta aparkaleku gehiago egitea nahi du, baina gainerakoek lehengo proiektua onartu dute

# Ekimena hartzen dugu
# *Llevamos la iniciativa*

**2008ko apirilaren 3a:** EAJ-PNVk Bozeramale Batzordean antolakuntza proposamena egin zuen San Pelaiorako, ikastola berria eta 120 etxebizitza eraikiko den eremurako, hain zuzen. Proposamen horren mamia etorkizunean azaleran aparkalekuak eraikitzeko eta Lapurdi Kaleari jarraipena eman ahal izateko espazioa gordetzea da, trenaren lurperatzea eta Iritaren urbanizazioa bezalako proiektu estrategikoak erraztuko lukeena. Halaber, ohartarazi zuen promotoreak aurkeztutako proiektuak ez diela interes orokorrei behar adina erantzuten, eta arazoak sor ditzakeela ikastolarako sarbidean berez nahiko delikatua den eremu batean, etorkizuna hipotekatuz. Irailaren 9an, Imanol Lasak eta Jose Mari Agirrek proposamena aurkeztu zieten zarauztarrei komunikabideen bitartez, eta gonbita luzatu zieten gainerako alderdiei beste horrenbeste egiteko eta "benetan zarauztar guztien mesederako" den akordioa lortzeko eztabaida hasteko. EAJ-PNV da promotorearen proiektua hobetzeko zerbait proposatu duen alderdi bakarra.

***3 de abril de 2008:*** *EAJ-PNV realiza en la Junta de Portavoces una propuesta de ordenación para San Pelaio, donde se proyecta la construcción de la nueva ikastola y de 120 viviendas, basada en la reserva de espacios para poder construir aparcamientos en superficie, y dar continuidad en el futuro a Lapurdi Kalea, lo que facilitaría las obras de proyectos estratégicos como el soterramiento del tren y la urbanización de Irita. Asimismo, alerta de que el proyecto presentado por el promotor no responde en la medida suficiente al bien público, y puede ocasionar problemas en el acceso a la ikastola en una zona ya de por sí delicada, hipotecando así el futuro. El día 9 de septiembre, Imanol Lasa y Jose Mari Agirre presentan la propuesta a los zarauztarras a través de los medios de comunicación e invitan al resto de formaciones políticas a hacer lo propio e iniciar un debate con el objetivo de llegar a un acuerdo que favorezca "realmente y no sobre el papel a todos y todas las zarauztarras".*




# IRITA

## ETORKIZUNEKO GUNE EKONOMIKOA

**Krisialdiaren aurrean indartu:** EAJ-PNV hasi da dagoeneko lanean 2009ko Udal aurrekontuei begira. Izan ere, funtsezko tresna dira mundu mailakoa izan arren, tokian-tokiko erabakiekin arindu daitekeen eta arindu behar den krisialdiari aurre egiteko. Tasa eta zergen bidez lortutako diru-sarrerak jaitsi egingo dira, eta horrek gastu korrontea mugatzera behartuko gaitu, diru-atal guztiak izoztuz, ongizate eta gizartekintzari dagozkionak izan ezik. Izan ere, inor ezin dugu alde batera utzi. Konponbidea ez da ongizatea eta eskubide sozialak murriztea, baizik eta behar-beharrezkoak ez diren diru-partidetan aurreztea eta inbertsio eta proiektu estrategikoak indartzea.



Ezin gara besoak gurutzatuta gelditu. Ekonomia produktibo bat garatzea eta I+G+i baliabideak mugiaraztea dira gakoetako bi, eta ildo horretan Iritako enpresa guneak sekulako garrantzia dauka, bai aberastasun sorkuntzan zein berrikuntzan eta heziketan. Garrantzi handia zeukan atzeraldi ekonomikoa baino lehen, eta are handiagoa orain. Urbanizazio obrak datorren urtean

## FUTURO CENTRO ECONÓMICO DE ZARAUTZ

***Fortalecerse ante la crisis:*** *Los presupuestos municipales de 2009, en los que EAJ-PNV ya trabaja, deben ser una herramienta fundamental para hacer frente a una crisis que es global pero cuyos efectos pueden y deben aminorarse a nivel local. La disminución de ingresos vía tasas e impuestos hará necesario contener el gasto corriente, congelando todas las partidas, excepto las referentes a bienestar y acción social. Nadie puede quedar desfavorecido. La solución no pasa por recortar el bienestar y los derechos sociales, sino por el ahorro en las partidas no imprescindibles y en la potenciación de las inversiones y proyectos estratégicos.*

*No cabe quedarse de brazos cruzados. Desarrollar una economía productiva y movilizar recursos de I+D+i son dos de las claves, y ahí el parque empresarial de Irita juega un papel fundamental, tanto en la creación de riqueza como en la innovación y formación. Ya lo jugaba antes de la crisis, y ahora más que nunca. Las obras de urbanización darán comienzo el próximo año, y ahora toca*




**INDUSTRIAREN ALDEKO APUSTUA.** Ekonomia produktiboa eta berrikuntza garatu nahi da Iritako proiektuaren bitartez.

hasiko dira, eta orain edukia ematea eta enpresak erakartzea da erronka. Horretarako, talde lanean jarraitu beharko dugu, orain arte bezala, Zarauzko Udalak, Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, Sprilurrek, Oteiza Politeknikoak eta herriko enpresek, guztiok. EAJ-PNVk hauteskunde garaian prozesu hori bultzatzeko hartutako konpronisoa berretsi nahi du, inongo pertsonalismotan erori gabe.

*darle contenido y atraer a las empresas. Para eso habrá que continuar trabajando en equipo y de manera conjunta, tal y como se ha venido haciendo, entre Ayuntamiento, Diputación, Gobierno Vasco, Sprilur, Oteiza Politeknikoa, y empresas del pueblo. EAJ-PNV reafirma el compromiso adoptado en época electoral de impulsar ese proceso, más allá de todo personalismo.*



## ASTI BULTZATU ETA FINKATU

Kirola oinarrizko jarduera da gizartean, orokorrean, eta Zarautzen bereziki, pizten duen zaletasun handiagatik. Horregatik, EAJ-PNVrentzat, gehien zaindu beharreko alorretarikoa da, aisialdi eskaintza ona eta bizi-kalitate egokiak bermatzeko. Testuinguru horretan, Astik protagonismo handia dauka, Zarauzko kirol praktikaren ardatz bezala. Egun dauzkagun azpiegiturak finkatu eta hobetu behar dira. Proiektu horrek abiapuntu posible bakarra dauka: egun dauden beharren eta eskarien azterketa argia eta sakona egitea, herriko kirol talde eta erakunde guztiak inplikatuz, eta euren proposamenak banan-bana aztertuz. EAJ-PNVk guzti haiekin zein Gipuzkoako Foru Aldundiarekin prozesu horretan elkarlanean eta era partekatuan jarduteko konpromisoa hartzen du.

## POTENCIAR Y CONSOLIDAR ASTI

*El deporte constituye un pilar esencial de la sociedad en general y de Zarautz en particular, por el arraigo con el que cuenta. Por eso es, para EAJ-PNV, uno de los aspectos que más hay que cuidar para garantizar la oferta de ocio y la calidad de vida. En ese contexto, Asti juega un papel fundamental como centro de la práctica deportiva en Zarautz. Hay que consolidar y mejorar las infraestructuras existentes, y el punto de partida de ese proyecto debe ser realizar un estudio claro y concluyente de las necesidades existentes, implicando a todas las entidades y grupos deportivos del pueblo, y analizando una por una sus propuestas. EAJ-PNV se compromete a trabajar de manera compartida en ese proceso con todos ellos, así como con la Diputación Foral de Gipuzkoa.*



# EAJ-PNV sarean

2008 | azaroa | noviembre

**Albisteak, iritziak, blogak eta askoz gehiago**

***Noticias, opinión, blogs y mucho más***




www.eaj-pnv-zarautz.com




www.eaj-pnv.eu




www.thinkgaureuskadi2020.com




www.gipuzko.com

**943 13 41 01 / 943 00 51 32 Zugandik gertu / Cerca de ti**

eaj-prentsa@zarautz.com

alderdia
Zarautzen

**www.eaj-pnv-zarautz.com**